Se trata de estimular a niños y niñas en aras a conseguir el mejor comportamiento en el metro, que es el modo de hacer el viaje más agradable.

## Sarearen plano berria.

Sestao eta Etxebarriko geltokiak inauguratu eta zerbitzuan jartzekoak zirenez, metro sarearen plano berria eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ziren maiztasun eta ordutegi berriak editatu behar izan ziren.

## Nuevo plano de la red.

Ante la inmediata inauguración y puesta en servicio de las estaciones de Sestao y Etxebarri, se hizo necesario editar un nuevo plano de la red de metro y de las frecuencias y horarios establecidos a partir del 8 de enero de 2005.



## Lurpi tirak

Metroberriren 32, 33, 34 eta 35 aleetan argitaratu ziren Lurpi tirak diseinatu ziren. Edukiak hauek izan ziren:

- 32. web orrialde berriaren erabilpena zuen hizpide.
- 33. Metroan gauza handi desberdinak nola eraman gomendatzen zen (surf taulak, bizikletak edo umeen aulkiak, besteak beste).
- 34. Mezuak metroaren garbitasuna zuen hizpide.
- 35. Gabonetarako zorionak opa ziren.

## Tiras Lurpi

Se diseñaros las tiras Lurpi que fueron publicadas en los números 32, 33, 34 y 35 de Metroberri. Estos fueron sus contenidos:

- 32. Se hacía referencia a la utilización informativa de la nueva página web.
- 33. Se dan consejos sobre el transporte en metro de diversos utensilios. voluminosos como tablas de surf, bicicletas o sillas de bebé.
- 34. El mensaje hacía referencia a la limpieza del metro.
- 35. Se felicitaba la Navidad.

## Metroberri

Argitalpen honen lau ale editatu eta banatu dira; gai nagusiak honako hauek izan dira:

- 32. "Hurrengo geltokia internet", Metroaren web orrialde berria hizpide.
- 33. "BEC, 250.000 $m^2$ metro batean", Ansion azoka esparru berria inauguratu zenean
- 34. "Etenik gabeko gauak", metroaren gaueko jarduera hizpide.
- 35. "Sestao eta Etxebarri, ongi etorri", bi geltoki horiek berehala inauguratuko zirela iragarriz.

## Metroberri

Se han editado y distribuido cuatro números de esta publicación, con los siguientes contenidos como temas centrales:

- 32. "Próxima estación internet", dedicado a la nueva página web de Metro Bilbao.
- 33. "BEC, 250.000 $m^2$ en un metro", con ocasión de la inauguración del nuevo recinto ferial en Ansio.
- 34. "Noches sin pausa", dedicado a la actividad nocturna del metro.
- 35. "Sestao y Etxebarri, ongi etorri", anunciando la inmediata inauguración de estas estaciones.

## Web orrialdea

Web orrialde berria diseinatu da, egitura eta erabilpen desberdinekin. Nabigazio zuhaitzak hiru adar nagusi ditu:

- Metroa, enpresako informazioarekin.
- Zu, metro zerbitzuari buruzko eduki guztiak biltzen ditu.
- Helmuga, hirian metro txartelari ahalik eta etekinik handiena atereaz ibiltzeko aukera eskaintzen du.

Iragarpen ekinaldia diseinatu zen, helbide berria www.metrobilbao.com ezagutarazi eta eduki berrien publizitatea egiteko.

Iragarkiak atera ziren egunkarietan, kartelak jarri geltokietako Oppietan, eta eranskailuak trenetako ohar-emaileetan; jendartean web gune berriari buruzko informazio orria eta Metroberria banatu ziren.

Goiburu interaktiboak ere sartu ziren Bizkaiko bitarteko digitaletan bi astez.

## Página web

Se ha diseñado una nueva página web, con distinta estructura y utilidades. El árbol de navegación se divide en tres apartados principales:

- Sección Metro, con información de la empresa.
- Sección Tú, que recopila todos los contenidos relativos al servicio del metro.
- Sección Destino, que ofrece la posibilidad de desplazarse por la ciudad aprovechando al máximo el billete de metro.

Se diseñó una campaña de lanzamiento cuyo objetivo fue el de dar a conocer la nueva dirección: www.metrobilbao.com y publicitar sus nuevos contenidos.

Se publicaron anuncios en la prensa diaria, se colocaron carteles en los Oppis de las estaciones y adhesivos en los avisadores de las unidades de tren y se repartió entre el público un flyer informativo. La revista Metroberri informó sobre la nueva página.

También se insertaron banners interactivos en los medios digitales de Bizkaia durante dos semanas.



Memoria hau diseinatzeko , ilustrazio modura, Metro Bilbaoko langileek egin eta aurtengo Argazki leihaketara aurkeztu dituzten argazkiak erabili ditugu. Hona hemen argazkien eta egileen aipamena:

En el diseño de esta Memoria se han utilizado, como material de ilustración, fotografías realizadas por empleadas y empleados de Metro Bilbao y presentadas al Concurso anual de fotografía. Damos referencia de las fotos y de sus autores:


| | | |
|---|---|---|
| 6.orr. | "Sintonía" Nagore Moreno | Pág. 6 |
| 38.orr. | "En tren" Iñaki Askasibar | Pág. 38 |
| 50.orr. | "Paseo Nocturno" Iratxe Furundarena | Pág. 50 |
| 53.orr. | "Estación 1" Felix Cañada | Pág. 53 |
| 57.orr. | "Nave Espacial" Gorka Ordeñana | Pág. 57 |
| 68.orr. | "Luz de Cristal" Pedro del Pozo | Pág. 68 |
| 75.orr. | "Barnetik" Iñigo Olazar | Pág. 75 |
| 77.orr. | "Cruce de caminos" Patricia Sánchez | Pág. 77 |
| 83.orr. | "El camino" Carlos Anguiano | Pág. 83 |
| 84.orr. | "Destellos de Tranquilidad" Dan Bombin | Pág. 84 |
| 100.orr. | "Horario Nocturno" José María Sagarduy | Pág. 100 |

# Auditoretzaren Txostena

# Informe de Auditoría

04

PRICEWATERHOUSECOOPERS

Edificio Sota
Gran Vía, 45 – 6º
48011 Bilbao, Vizcaya
España
Tel. +34 946 022 500
Fax +34 946 022 750

# INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES
# URTEKO KONTUEN IKUSKARITZAREN TXOSTENA

Metro Bilbao, S.A.ren Akziodun Bakarrari

1. Metro Bilbao, S.A.ren urteko kontuak ikuskatu ditugu, hau da, 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzea eta aipatutako datan amaituriko urteko ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak eta memoria; beraien formulazioa Baltzuko Administrarien erantzukizuna delarik. Gure erantzukizuna aipatutako urteko kontu horiei buruz, oro har, iritzi bat ematea da. Iritzi hori orokorki onartutako ikuskaritza-arauen arabera egindako lanean oinarrituta egongo da. Izan ere, Ikuskaritza–arauek, froga hautatuak eginda, urteko kontuen nabaritasun justifikagarriaren azterketa eskatzen dute, eta baita bere aurkezpenaren, aplikaturiko kontabilitate-prinzipioen eta egindako balioespenen ebaluaketa ere.

2. Merkataritza-legediarekin bat etorriz eta datuak alderatze-ondorioetarako, administratzaileek 2004ko Ekitaldiari eta aurreko ekitaldiari dagozkien zenbatekoak aurkezten dituzte, balantzeko, galdu-irabazien kontuko eta finantzaketa-taulako partida bakoitzarekin batera. Gure iritzia 2004ko Ekitaldiari dagozkion urteko kontuei soilik dagokie. 2004ko martxoaren 29eko dataz, 2003 urteko kontuei buruzko kontu-ikuskaritza txostena eman genuen, bertan, salbuespendun iritzi bat adieraziz.

Al Accionista Único de Metro Bilbao, S.A.

1. Hemos auditado las cuentas anuales de Metro Bilbao, S.A. que comprenden el balance de situación al 31 de diciembre de 2004, la cuenta de pérdidas y ganancias y la memoria correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, cuya formulación es responsabilidad de los administradores de la Sociedad. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. De acuerdo con la legislación mercantil, los administradores presentan, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias y del cuadro de financiación, además de las cifras del ejercicio 2004, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a las cuentas anuales del ejercicio 2004. Con fecha 29 de marzo de 2004 emitimos nuestro informe de auditoría acerca de las cuentas anuales del ejercicio 2003 en el que expresamos una opinión con salvedades.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L. – R. M. Madrid, hoja 87.250-1, folio 75, tomo 9.267, libro 8.054, sección 3ª
Inscrita en el R.O.A.C. con el número S0242 – CIF: B-79031290

PRICEWATERHOUSECOOPERS

3. Erantsitako memoriaren 2.b) oharrean adierazten den moduan, Baltzuak, Bilboko Metropoliko Hiri Trenaren ustiapen-jarduera garatzeko, bere jabetzakoak ez diren zenbait ondasun erabiltzen du, eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren edo beste erakunde publiko batzuen ondasun horiek erabiltzeak ez dio inolako kosturik ekarri Baltzuari. Era berean, Baltzuak ez du Metroa eraikitzeko finantzaketari dagokion kargurik jaso, Baltzu honen sozietate-estatutuen arabera, adierazitako metroaren eraikuntzak bere kargura egon behar duen arren. Gaur egun, ordea, ez dago arestian aipatutako kontzeptuen ondorioz Baltzuari, hala badagokio, lotu dakiokeen kostua, ezta, jabegoaren era juridikoari eta aipatutako ondasunen erabil eskubideari buruzko azken erabakiak eransten diren urteko kontuetan izan lezakeen ondorioa zehazterik ere.

3. Como se indica en la nota 2.b) de la memoria adjunta, la Sociedad utiliza en el desarrollo de su actividad de explotación del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao determinados bienes que no son de su propiedad, pertenecientes al Consorcio de Transportes de Bizkaia o a otros organismos públicos, cuyo uso no supone ningún coste para la Sociedad. Asimismo, la Sociedad no ha recibido cargo alguno relativo a la financiación de la construcción de dicho Ferrocarril Metropolitano que, de acuerdo con sus estatutos sociales, debería correr a su cargo. A la fecha actual, no es posible determinar el coste que, en su caso, pudiera ser repercutido a la Sociedad por los conceptos antes mencionados ni el efecto que en las cuentas anuales adjuntas pudiera tener la decisión que finalmente se adopte sobre la forma jurídica de la propiedad y el derecho de uso de los citados bienes.

4. Aurreko 3. paragrafoan adierazitako salbuespenaren ziurgabetasunaren amaiera ezagutuko balitz, beharrezkotzat har zitezkeen egokitzapenen eragina izan ezik, gaineratzen diren 2004ko ekitaldiko urteko kontuek, gure iritziz, Metro Bilbao, S.A.k 2004ko abenduaren 31n izandako ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute alderdi esanguratsu guztietan, eta halaber aipatutako datan amaituriko urteko ekitaldian zehar eskuratu eta aplikaturiko baliabideena ere, eta orokorki onarturiko eta uniformeki aplikaturiko printzipio eta kontabilitate-arauen arabera ulertu eta aditzeko behar eta aski den informazioa dute.

4. En nuestra opinión, excepto por los efectos de cualquier ajuste que pudiera ser necesario si se conociera el desenlace final de la incertidumbre descrita en la salvedad mencionada en el párrafo 3 anterior, las cuentas anuales del ejercicio 2004 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de Metro Bilbao, S.A. al 31 de diciembre de 2004 y de los resultados de sus operaciones y de los recursos obtenidos y aplicados durante el ejercicio anual terminado en dicha fecha y contienen la información necesaria y suficiente para su interpretación y comprensión adecuada, de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

PricewaterhouseCoopers

5. Honekin batera doan 2004ko ekitaldiko kudeaketa txostenak Metro Bilbao, S.A.ren egoera, negozioen bilakaera, eta beste gai batzuei buruz Administrariek egokitzat dituzten azalpenak dakarzki; baina horiek ez dira urteko kontuen zati osakide. Guk, aipatutako kudeaketa txostenak dakarren kontabilitate-informazioa 2004ko Ekitaldiko urteko kontuekin bat datorrela egiaztatu dugu. Gure lana, ikuskari garenez, kudeaketa txostena, paragrafo honexetan aipaturiko helmenarekin egiaztatzera mugatzen da eta, beraz, ez du barnean hartzen Baltzuaren kontabilitate-erregistroetatik kanpo eskuratutako informazioaren berrikuspenik.

5. El informe de gestión adjunto del ejercicio 2004 contiene las explicaciones que los administradores consideran oportunas sobre la situación de Metro Bilbao, S.A., la evolución de sus negocios y sobre otros asuntos y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene el citado informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2004. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación del informe de gestión con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Sociedad.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.

Juan García Orozco
Bazkidea - Kontuen Ikuskatzailea
Socio - Auditor de Cuentas

Bilbon, 2005ko martxoaren 21
Bilbao, 21 de marzo de 2005

## 2004ko Ekitaldiaren Urteko Kontuak

## Cuentas Anuales del Ejercicio 2004

04

## Metro Bilbao, S. A.

## 2003 eta 2004ko abenduaren 31ko egoeren balantzeak (milako eurotan adieraziak)



Balances de Situación al 31 de Diciembre de 2004 y de 2003 (Expresados en Miles de euros)

| Aktiboa<br>Activo | 2004 | 2003 |
|---|---|---|
| B) Ibilgetua<br>Inmovilizado | 22.535 | 23.232 |
| II. Ibilgetu ez-materialak (5. oharra)<br>Inmovilizaciones inmateriales (Nota 5) | 833 | 804 |
| 2. Emakida, patente eta lizentziak<br>Concesiones, patentes y licencias | 79 | 79 |
| 5. Aplikazio informatikoak<br>Aplicaciones informáticas | 6.551 | 6.048 |
| 9. Amortizazioak<br>Amortizaciones | (5.797) | ( 5.323) |
| III. Ibilgetu materialak (6. oharra)<br>Inmovilizaciones materiales (Nota 6) | 21.319 | 22.030 |
| 1. Lurzatiak eta eraikuntzak<br>Terrenos y construcciones | 7.236 | 6.151 |
| 2. Instalazio teknikoak eta makineria<br>Instalaciones técnicas y maquinaria | 23.820 | 23.075 |
| 3. Beste instalazio batzuk, tresneria eta altzariak<br>Otras instalaciones, utillaje y mobiliario | 1.018 | 994 |
| 5. Beste Ibilgeturik<br>Otro inmovilizado | 6.198 | 6.511 |
| 7. Amortizazioak<br>Amortizaciones | (16.953) | ( 14.701) |
| IV. Finantza-Ibilgetuak (7.oharra)<br>Inmovilizaciones financieras (Nota 7) | 383 | 398 |
| 6. Beste kreditu batzuk<br>Otros créditos | 380 | 395 |
| 7. Epe luzerako gordailu eta fidantzak<br>Depósitos y fianzas constituidos a largo plazo | 3 | 3 |
| D) Aktibo zirkulatzailea<br>Activo circulante | 22.537 | 20.801 |
| I. Akziodun eskatutako ordainketengatik (12. oharra)<br>Accionistas por desembolsos exigidos (Nota 12) | 1.474 | 1.710 |
| II. Izakinak (8. oharra)<br>Existencias (Nota 8) | 2.116 | 1.531 |
| 2. Lehengaiak eta beste hornidura batzuk<br>Materias primas y otros aprovisionamientos | 2.116 | 1.531 |
| III. Zordunak<br>Deudores | 5.238 | 5.613 |
| 3. Zordunen taldeko enpresak (18. oharra)<br>Empresas del grupo deudores (Nota 18) | 2.049 | 1.954 |
| 4. Zenbait zordun<br>Deudores varios | 1.376 | 1.315 |
| 5. Langileak<br>Personal | 185 | 186 |
| 6. Herri administrazioak (9. oharra)<br>Administraciones públicas (Nota 9) | 1.628 | 2.158 |
| IV. Aldi bateko finantza-inbertsioak (10. oharra)<br>Inversiones financieras temporales (Nota 10) | 10.788 | 8.099 |
| 5. Epe laburrerako balore-kartera<br>Cartera de valores a corto plazo | 10.788 | 8.099 |
| 7. Epe laburrera jarritako gordailu eta fidantzak<br>Depósitos y fianzas constituidas a corto plazo | - | - |
| VI. Diruzaintza (11. oharra)<br>Tesorería (Nota 11) | 2.839 | 3.130 |
| VII. Aldizkapenagatiko doikuntzak<br>Ajustes por periodificación | 82 | 718 |
| Aktiboa guztira<br>Total activo | 45.072 | 44.033 |

| Pasiboa<br>Pasivo | 2004 | 2003 |
|---|---|---|
| **A) Enpresaren fondoak (12. oharra)**<br>Fondos propios (nota 12) | 17.566 | 17.474 |
| **I. Harpidetutako kapitala**<br>Capital suscrito | 23.470 | 21.504 |
| **II. Akzioak jaulkitzeagatiko saria**<br>Prima de emisión de Acciones | 21.469 | 13.605 |
| **V. Aurreko ekitaldietako emaitzak**<br>Resultados de ejercicios anteriores | (17.635) | ( 9.928) |
| **VI. Galerak eta irabaziak**<br>Pérdidas y ganancias | (9.738) | ( 7.707) |
| **B) Hainbat ekitalditan banatzeko diru-sarrerak**<br>Ingresos a distribuir en varios ejercicios | - | 1 |
| **1. Kapitaleko dirulaguntzak (13. oharra)**<br>Subvenciones de capital (Nota 13) | - | 1 |
| **C) Arrisku eta gastuetarako hornidurak (14. oharra)**<br>Provisiones para riesgos y gastos (Nota 14) | 9.108 | 9.393 |
| **1. Pentsio eta antzeko betebeharretarako zuzkidura**<br>Provisión para pensiones y obligaciones similares | 514 | 479 |
| **3. Beste hornidura batzuk**<br>Otras provisiones | 8.594 | 8.914 |
| **E) Epe laburrerako hartzekodunak**<br>Acreedores a corto plazo | 18.398 | 17.165 |
| **III. Zorrak taldeko enpresekin eta lotutakoekin**<br>Deudas con empresas del grupo y asociadas | 2.373 | 2.232 |
| **1. Zorrak taldeko enpresekin (18. oharra)**<br>Deudas con empresas del grupo (Nota 18) | 2.373 | 2.232 |
| **IV. Merkataritza hartzekodunak**<br>Acreedores comerciales | 10.814 | 10.000 |
| **2. Salmenten eta zerbitzu-prestazioen ondoriozko zorrak**<br>Deudas por compras o prestación de servicios | 10.814 | 10.000 |
| **V. Merkatukoak ez diren beste zor batzuk**<br>Otras deudas no comerciales | 3.792 | 3.504 |
| **1. Herri administrazioak (9. oharra)**<br>Administraciones públicas (Nota 9) | 711 | 736 |
| **3. Ibilgetuaren hornitzaileak**<br>Proveedores de inmovilizado | 2.339 | 2.424 |
| **4. Ordaintzeko dauden lansariak**<br>Remuneraciones pendientes de pago | 694 | 318 |
| **5. Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak**<br>Fianzas y depósitos recibidos a corto plazo | 48 | 26 |
| **VII. Aldizkapenagatiko doikuntzak (15. oharra)**<br>Ajustes por periodificación (Nota 15) | 1.419 | 1.429 |
| **Pasiboa guztira**<br>Total pasivo | 45.072 | 44.033 |

## Metro Bilbao, S. A.

## 2003 eta 2004ko abenduaren 31n amaitutako urteen ekitaldiei dagozkien galera eta irabazien kontuak (milako eurotan adieraziak)



Cuentas de pérdidas y ganancias correspondientes a los ejercicios anuales terminados el 31 de diciembre de 2004 y de 2003 (Expresados en miles de euros)

| **Zorra**<br>Debe | 2004 | 2003 |
|---|---|---|
| **A) Gastuak**<br>Gastos | | |
| **2. Hornidurak (17. oharra) /** Aprovisionamientos (Nota 17) | 742 | 559 |
| **b) Lehengaien eta beste gai kontsumigarri batzuen kontsumoa**<br>Consumo de materias primas y otras materias consumibles | 742 | 559 |
| **3. Langileen gastuak /** Gastos de personal | 19.881 | 19.687 |
| **a) Soldata, alokairuak eta antzekoak /** Sueldos, salarios y asimilados | 14.739 | 14.474 |
| **b) Gizarte-kargak (17. oharra) /** Cargas sociales (Nota 17) | 5.142 | 5.213 |
| **4. Ibilgetua amortizatzeko diru-zuzkidurak (5. eta 6. oharrak)**<br>Dotaciones para amortizaciones de inmovilizado (Notas 5 y 6) | 3.582 | 3.615 |
| **6. Ustiapeneko bestelako gastuak /** Otros gastos de explotación | 25.797 | 23.539 |
| **a) Kanpoko zerbitzuak /** Servicios exteriores | 25.392 | 23.272 |
| **b) Zergak /** Tributos | 102 | 103 |
| **c) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak /** Otros gastos de gestión corriente | 303 | 164 |
| **I. Ustiapeneko mozkinak /** Beneficios de Explotación | - | - |
| **II. Finantza-emaitza positiboak /** Resultados financieros positivos | 203 | 201 |
| **III. Ohiko jardueretako mozkinak /** Beneficios de las actividades ordinarias | - | - |
| **11. Ibilgetutik datozen galerak /** Pérdidas procedentes del inmovilizado | 32 | 41 |
| **14. Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak**<br>Gastos y pérdidas de otros ejercicios | 2 | 20 |
| **15. Ez-ohiko gastuak /** Gastos extraordinarios | 38 | 22 |
| **IV. Ez-ohiko emaitza positiboak /** Resultados extraordinarios positivos | 395 | 440 |
| **V. Zerga aurreko mozkinak /** Beneficios antes de impuestos | - | - |
| **VI. Ekitaldiko emaitza (mozkinak) /** Resultado del ejercicio (beneficios) | - | - |

| Hartzekoa<br>Haber | 2004 | 2003 |
|---|---|---|
| **B) Sarrerak**<br>Ingresos | | |
| **1. Negozioen zifraren zenbateko garbia (17. oharra)**<br>Importe neto de la cifra de negocios (Nota 17) | 37.577 | 35.971 |
| **a) Salmentak**<br>Ventas | 1 | 1 |
| **b) Zerbitzu-prestazioak**<br>Prestaciones de servicios | 37.576 | 35.970 |
| **3. Ustiapeneko beste sarrera batzuk**<br>Otros ingresos de explotación | 2.089 | 3.081 |
| **a) Sarrera gehigarriak eta kudeaketaarrunteko beste batzuk**<br>Ingresos accesorios y otros de gestión corriente | 1.408 | 1.345 |
| **b) Dirulaguntzak**<br>Subvenciones | 88 | 183 |
| **c) Arrisku eta gastuetako zuzkiduren soberakoa**<br>Exceso de provisiones de riesgos y gastos | 593 | 1.553 |
| **I. Ustiapeneko galerak /** Pérdidas de Explotación | 10.336 | 8.348 |
| **6. Aktibo ibilgetuko beste balore negoziagarrien eta taldetik kanpoko enpresen sarrerak**<br>Ingresos de otros valores negociables y de empresas fuera del grupo | 121 | 107 |
| **7. Asimilatutako bestelako korritu eta sarrerak**<br>Otros intereses e ingresos asimilados<br>**c) Beste korritu batzuk /** Otros intereses | 82 | 94 |
| **II. Finantza-emaitza negatiboak /** Resultados financieros negativos | - | - |
| **III. Ohiko jardueretako galerak /** Pérdidas de las actividades ordinarias | 10.133 | 8.147 |
| **11. Ekitaldiko emaitzera eramandako kapitaleko dirulaguntza transferituak (13. oharra)**<br>Subvenciones en capital transferidas (Nota 13) | 1 | 6 |
| **12. Ez-ohiko sarrerak /** Ingresos extraordinarios | 61 | 86 |
| **13. Beste ekitaldi batzuetako sarrerak eta mozkinak /** Ingresos y beneficios de otros ejercicios | 399 | 430 |
| **14. Ibilgetu ez-material, materialaren salmenatern eta kontrol kartera**<br>Beneficio por enajenación de inmovilizado inmaterial, material y cartera de control | 6 | 1 |
| **IV. Ez-ohiko emaitza negatiboak /** Resultados extraordinarios negativos | - | - |
| **V. Zergen aurreko galerak /** Pérdidas antes de impuestos | 9.738 | 7.707 |
| **VI. Ekitaldiko emaitza (galerak) /** Resultado del ejercicio (pérdidas) | 9.738 | 7.707 |

## 1. Oharra - Enpresaren Jarduera

Metro Bilbao, S.A. 1993ko otsailaren 18an luzatutako eskritura publikoaren bidez eratu zen, eta jarduera nagusi gisa Bilboko Hiri Trena Kudeatu behar du, alegia, hura osatzen duten zein hari lotuta dauden ondasunak administratu eta oinegitura horretaz baliatuz garatu behar duen garraio zerbitzua ustiatu.

Baltzuak 1995eko azaroaren 11n egin zuen ustiapeneko bere jardueraren inaugurazio ofiziala, eta 2004ko abenduaren 31n 1. linea (Bolueta-Plentzia). eta 2. linea (Bolueta-Urbinaga) daude martxan.

Baltzuaren egoitza Bilbon dago.

## Nota 1 - Actividad de la Empresa

Metro Bilbao, S. A. se constituyó mediante escritura pública otorgada el 18 de febrero de 1993 y tiene como actividad principal la gestión del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao, lo que comprende la administración de los bienes integrantes o afectos al mismo y la explotación del servicio de transporte que a través de aquél ha de desarrollarse.

La Sociedad inauguró oficialmente su actividad de explotación el día 11 de noviembre de 1995, encontrándose a 31/12/04 en funcionamiento la línea 1 (Bolueta-Plentzia) y la línea 2 (Bolueta-Urbinaga).

El domicilio social se encuentra en Bilbao.

## 2. Oharra - Urteko Kontuak Aurkezteko Oinarriak

a) Irudi zintzoa

Urteko kontuak Baltzuaren kon-tabilitate erregistroetatik atera dira, eta eurotan mantenduz, indarreko merkatulegediari eta Kontabilitate Plan Orokorreko arauei jarraituz aurkeztu dira. Horrela erakutsiko dira, hain zuzen, Baltzuaren ondarearen finantzen egoeraren eta emaitzen irudi zintzoa erakusteko asmoz.

2004ko abenduaren 31n amaitu den ekitaldiko kontuak Akziodunen Batzar Nagusiak onartu behar ditu oraindik. Hala ere, Administrazioko Kontseiluak uste du lehen aipatutako onarpenak ez duela inolako aldaketarik ekarriko.

Urteko kontu hauek osatzen dituzten dokumentuetan, hain zuzen, egoeraren balantzean, galera eta irabazien kontuan, eta memoria honetan agertzen diren zifra guztiak milako eurotan adierazi dira.

## Nota 2 - Bases de Presentación de las Cuentas Anuales

a) Imagen fiel

Las cuentas anuales se han preparado a partir de los registros contables de la Sociedad que se mantienen en euros y se presentan de acuerdo con la legislación mercantil vigente y con las normas establecidas en el Plan General de Contabilidad, con objeto de mostrar la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad.

Las cuentas al 31 de diciembre de 2004 están pendientes de aprobación por la Junta General de Accionistas, no obstante el Consejo de Administración opina que no se producirán modificaciones como consecuencia de dicha aprobación.

Las cifras contenidas en los documentos que componen estas cuentas anuales, el balance de situación, la cuenta de pérdidas y ganancias y la memoria, están expresadas en miles de euros.

b) Erakunde publikoen jabetza diren ondasunen erabilpena

Bere jarduera burutzeko Baltzuak erabiltzen dituen ondasun gehienak erakunde publikoenak dira, eta ez dira egoera-balantzearen aktiboan agertzen. Izan ere, ondasun horiek erabiltzeak ez dio inolako kosturik ekartzen Baltzuari.

Ibilgetu materialen izenburuaren barruan beste kontzeptu batzuez gain, Baltzua eratu zenetik, ondasun horiei dagokienean egin dituen hobekuntzak eta inbertsio osagarriak ere badaude.

## 3. Oharra - Emaitzaren Banaketarako Proposamena

Akziodunen Batzar Nagusiaren esku utziko da ekitaldi honetako galerak, 9.738 milako eurotakoak, aurreko ekitaldietako Emaitza negatiboen atalera aldatzeko erabakia onestea ala ez.

## 4. Oharra – Kontabilitate Irizpideak

Ondoren azalduko dira Baltzuaren urteko kontuak prestatzeko erabili diren balorazio arau nagusiak eta kontabilitate irizpideak:

a) Ibilgetu ez-materialak

Ibilgetu ez-materialak erosi zireneko prezioan zein ekoizpeneko beren kostuan kontabilizatuta agertzen dira. Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatzen da, koefiziente hauetan oinarrituta:

b) Utilización de bienes propiedad de organismos públicos

La mayor parte de los bienes que la sociedad utiliza en el desarrollo de su actividad, son propiedad de organismos públicos y no figuran en el activo del balance de situación. El uso de estos bienes no supone coste alguno para la sociedad.

El epígrafe de inmovilizaciones materiales recoge entre otros conceptos, las mejoras e inversiones complementarias que sobre estos bienes ha realizado la sociedad desde su constitución.

## Nota 3 - Propuesta de Distribución del Resultado

Se someterá a la aprobación de la Junta General de Accionistas el traspaso de las pérdidas del ejercicio, por importe de 9.738 miles de euros a Resultados negativos de ejercicios anteriores.

## Nota 4 - Criterios Contables

Las principales normas de valoración y criterios contables aplicados en la preparación de las cuentas anuales de la Sociedad se describen a continuación:

a) Inmovilizaciones inmateriales

Las inmovilizaciones inmateriales figuran contabilizadas a su precio de adquisición o a su coste de producción. La amortización se calcula por el método lineal, según los siguientes coeficientes:

| | | % Portzentaiak<br>Porcentajes % |
|---|---|---|
| **Emakida, patente eta lizentziak** | Concesiones, patentes y licencias | 10 |
| **Aplikazio informatikoak** | Aplicaciones informáticas | 33 |

b) Ibilgetu materialak

Ibilgetu materiala erosteko kostuan edo ekoizteko kostuan agertzen da eta, honako koefizienteen arabera, lerroan-lerroan amortizatzen da:

b) Inmovilizaciones materiales

Las inmovilizaciones materiales se reflejan al coste de adquisición o coste de producción y se amortizan linealmente en función de los siguientes coeficientes:

| | | % Portzentaiak<br>Porcentajes % |
|---|---|---|
| **Eraikuntzak** | Construcciones | 2tik 10era / 2 a 10 |
| **Instalazio teknikoak eta makineria** | Instalaciones técnicas y maquinaria | 7tik 12ra / 7 a 12 |
| **Tresneria** | Utillaje | 30 |
| **Altzariak** | Mobiliario | 10 |
| **Informazioa prozesatzeko ekipoa** | Equipo proceso información | 25 |
| **Garraioko elementuak** | Elementos de transporte | 8tik 16ra / 8 a 16 |
| **Beste ibilgetu materialik** | Otro inmovilizado material | 10 |

Mantentze eta zainketa gastuak emaitzetara egozten dira sortzen diren unean. Bajak eta besterentzeak elementuaren kostua eta dagokion amortizazio pilatua ezabatuz agertzen dira kontabilitatean.

c) Finantza-inbertsioak

Finantza-inbertsioak, epe labur zein luzerakoak, erosketaren prezioan edo, txikiagoa bada, merkatukoan islatzen dira.

d) Izakinak

Izakinak eskuratzeko kostuan ala merkatuko balioan balioesten dira, bietatik txikienean.

e) Kaleratzeagatiko kalte-ordainak

Kaleratzearen ondoriozko kalteor-dainak, kaleratzea erabakitzen den ekitaldian bertan, gastu gisa erregistratzen dira.

Los gastos de mantenimiento y conservación se imputan a resultados en el momento en que se producen. Las bajas y enajenaciones se reflejan contablemente mediante la eliminación del coste del elemento y la amortización acumulada correspondiente.

c) Inversiones financieras

Las inversiones financieras tanto a corto como a largo plazo se reflejan al precio de adquisición o al de mercado si fuera menor.

d) Existencias

Las existencias se valoran al coste de adquisición o al valor del mercado, el menor de los dos.

e) Indemnizaciones por despido

Las indemnizaciones por despido se registran como gasto en el ejercicio en el que se adopta la decisión de despido.

f) Kapitaleko dirulaguntzak

Kapitaleko dirulaguntzak ofizialki ematen diren unean kontabilizatzen dira, eta "Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak" izenburupean erregistratzen dira; eta ekitaldiaren emaitzari egozten zaizkio, diru-laguntza horiekin finantzatu diren aktiboei dagokien amortizazioaren proportzioan.

g) Pentsio eta antzeko betebeharretarako zuzkidura

Baltzuak konpromiso zehatzak dauzka langileekin:

- Iraupen saria: Langile orok enpresak gutxienez 30 urte irauteagatik eskubidez jasotzen duen saria da.
- Nahitako erretiroaren kalte ordaina: 60 urtetik aurrera beren borondatez erretiratzea erabakitzen duten langileei eskubidez dagokien kalte ordaina da, betiere 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, edo 1969ko abenduaren 19a baino lehen trenbide alorreko araubidean kotizatu badu. Hor 25 pertsona leudeke.

Kontzeptu horiek biak sartu berriak diren zein Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.tik etorri ziren langileei aplikatzekoak dira. Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A.n Herri Baltzutik (ET/FV) etorritako langileek han zituzten eskubide guztiei eutsi diete hona ekarri dituztenean, eta eskubide horien artean aintzinatasuna ere sartzen da, ordaintzeko kontzeptu horien ondoreetarako.

f) Subvenciones de capital

Las subvenciones de capital se contabilizan cuando se obtiene la concesión oficial de las mismas y se registran bajo el epígrafe "Ingresos a distribuir en varios ejercicios", imputándose al resultado del ejercicio en proporción a la amortización correspondiente a los activos financiados con las mismas.

g) Provisión para pensiones y obligaciones similares

La Sociedad tiene determinados compromisos con el personal:

- Premio de permanencia: Corresponde al premio a que tiene derecho todo el personal por la permanencia en la empresa por un período de tiempo no inferior a 30 años.
- Indemnización por jubilación voluntaria: Corresponde a la indemnización a que tiene derecho el personal que voluntariamente decida jubilarse a partir de los 60 años, siempre que haya cotizado a la Seguridad Social en el régimen general antes del 1 de enero de 1967 o en el régimen ferroviario antes del 19 de diciembre de 1969. El colectivo afectado es de 25 personas.

Estos conceptos son aplicables tanto al personal de nueva incorporación como al procedente de Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A. (ET/FV). El personal procedente de la Sociedad Pública Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A. (ET/FV) ha seguido manteniendo todos sus derechos al ser traspasado a la Sociedad, entre los que se encuentra la antigüedad a efectos de estos conceptos retributivos.

2004ko abenduaren 31n pentsioetarako zuzkiduran ekitaldia ixtean iraupen sari gisa sortutako zenbatekoa soilik jasotzen da. 2002ko ekitaldian Baltzuak langileekiko zegoen konpromisoa kanpora atera zuen, borodantezko erretiroarengatik kalte ordain modura, aseguru etxe batekin sinatutako kontratu baten bidez, zeinengatik ordainketa bakarra egin zen, eta ordainketaren zenbatekoa urtero eguneratzen da. Ekitaldia ixteko orduan, kontzeptu horrengatik dagoen zenbatekoa 652 milako eurotakoa da eta 2005an 59 milako euro inguru ordaindu beharko dira.

2004ko ekitaldian 64 milako euroko gastua erregistratu da kontzeptu horren pean, baita 112 milako euroko diru sarrera ere, horri heldu dioten langileengatik.

h) Konponketa handietarako hornidura

Baltzuak konponketa handietarako aurreikusi den gastua hornitzen du, sortzapenaren arabera. Urtean hornitu beharreko zenbatekoa, berrikusi behar deneko epe edo aldiaren arabera kalkulatzen da baita berrikuste horri guztira zenbatetsitako zenbatekoaren arabera ere.

i) Diru sarrerak aldizkatzea

Urteko bidai txartelen salmentetatik datozen dirusarrerak igarotako epearen arabera aldizkatzen dira.

j) Epe luzerako saldoak

Epe luzerako saldotzat harzen dira mugaeguna urte bete baino gehiagokoa dutenak.

Al 31 de diciembre de 2004 la provisión para pensiones recoge únicamente el importe devengado al cierre del ejercicio en concepto de premio de permanencia. En el ejercicio 2002 la Sociedad externalizó el compromiso existente con el personal, en concepto de Indemnización por Jubilación voluntaria, mediante un contrato establecido con una compañía de seguros por el que se realizó el pago de una prima única, que se actualiza anualmente. Al cierre del ejercicio el importe por este concepto asciende a 652 miles de euros y la prima a pagar en el ejercicio 2005 será de 59 miles de euros aproximadamente.

Durante el ejercicio 2004 se ha registrado un gasto de 64 miles de euros por este concepto, así como un ingreso de 112 miles de euros en concepto de devolución, por personal no acogido.

h) Provisión para grandes reparaciones

La Sociedad provisiona el gasto previsto para grandes reparaciones en función de su devengo. El importe a provisionar anualmente, se calcula en función del período o plazo en el que se ha de efectuar la revisión, y el importe total estimado de la misma.

i) Periodificación de ingresos

Los ingresos obtenidos en la venta de títulos de viajes anuales son periodificados en función del período transcurrido.

j) Saldos a largo plazo

Se consideran saldos a largo plazo los de vencimiento superior al año.

k) Baltzuen gaineko zerga

Baltzuen gaineko zerga ekitaldi bakoitzeko gastutzat jotzen da, urteko kontuetan xehatutako zergen aurreko mozkinean oinarrituz kalkulatuta eta zerga irizpideekin etengabe zuzenduta, eta hobari eta kenkari aplikagarriak kontuan hartuta. Diru sarrera eta gastuen aitorpenean zerga irizpideak aplikatzearen ondoriozko denbora gorabeheren emaitza gisa sortzen den zerga geroratu edo aurreratua egoeraren balantzean islatzen da, harik eta berreskuratu arte.

Zergaren kuotako hobariak eta kenkariak, baita galera kitagarrien aplikazioaren zergazko ondorea ere, zergengatiko gastuen murrizketa modura zenbatzen dira, aplikatu edo kitatzen diren ekitaldian.

l) Ingurumena

Xede nagusia ingurumeneko kalteari aurrea hartu, gutxitu edo konpontzea duen edozein eragiketaren ondoriozko ingurumen gastuen zenbatekoa gastuak sortzen direneko ekitaldiko ustiapen gastutzat hartzen da, eta galera eta irabazien kontuan dagokien atalean sartuko dira. Gastu horiek ibilgetu materialerako eransketak direnean, ingurumen zerga ahalik eta gutxien izatera eta ingurumena babestu eta hobetzera bideratutako eransketak, alegia, ibilgetuaren balio modura zenbatzen dira.

k) Impuesto sobre sociedades

Se reconoce como gasto en cada ejercicio el Impuesto sobre sociedades calculado en base al beneficio antes de impuestos desglosado en las cuentas anuales, corregido por las diferencias de naturaleza permanente con los criterios fiscales y tomando en cuenta las bonificaciones y deducciones aplicables. El impuesto diferido o anticipado que surge como resultado de diferencias temporales derivadas de la aplicación de criterios fiscales en el reconocimiento de ingresos y gastos, se refleja en el balance de situación hasta su reversión.

Las bonificaciones y deducciones en la cuota del impuesto, así como el efecto impositivo de la aplicación de pérdidas compensables, se consideran como minoración del gasto por impuestos en el ejercicio en que se aplican o compensan.

l) Medio Ambiente

El importe de los gastos medioambientales derivados de cualquier operación cuyo propósito principal sea prevenir, reducir o reparar el daño sobre el medio ambiente, se consideran gastos de explotación del ejercicio en que se devenguen y se incorporarán a la cuenta de pérdidas y ganancias en la partida correspondiente. Cuando dichos gastos supongan incorporaciones al inmovilizado material, cuyo fin sea la minimización del impuesto medioambiental y la protección y mejora del medioambiente, se contabilizan como valor del inmovilizado.

## 5. Oharra - Ibilgetu Ez-materialak

## Nota 5- Inmovilizaciones Inmateriales

Hauexek dira ibilgetu ez-materialen kontuetan izan diren mugimenduak:

Los movimientos habidos en las cuentas incluidas en Inmovilizaciones inmateriales han sido los siguientes:

| | | Emakida, patente eta lizentziak / Concesiones, patentes y licencias | Aplikazio informatikoak / Aplicaciones informáticas | Bidean dagoen ibilgetu inmateriala / Inmovilizado inmaterial en curso | Guztira / Total |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kostua** | **Coste** | | | | |
| Hasierako saldoa | Saldo inicial | 79 | 6.048 | - | 6.127 |
| Gehiketak | Adiciones | - | 398 | 125 | 523 |
| Erretiroak | Retiros | - | (20) | - | (20) |
| Eskualdaketak | Traspasos | - | 125 | (125) | - |
| Azken saldoa | Saldo final | 79 | 6.551 | - | 6.630 |
| **Amortizazioak** | **Amortizaciones** | | | | |
| Hasierako saldoa | Saldo inicial | (57) | (5.266) | - | (5.323) |
| Zuzkidura | Dotación | (8) | (486) | - | (494) |
| Erretiroak | Retiros | - | 20 | - | 20 |
| Azken saldoa | Saldo final | (65) | (5.732) | | (5.797) |
| **Balio garbia** | **Valor neto** | | | | |
| Hasieran | Inicial | 22 | 782 | - | 804 |
| Azkenean | Final | 14 | 819 | - | 833 |

Milako eurotan / Miles de euros

2004ko abenduaren 31n jatorrizko kosteko 5.021 milako euroko aplikaziko informatikoak daude, erabat amorti-zatuta egonik oraindik erabiltzen ari direnak.

Al 31 de diciembre de 2004 existen aplicaciones informáticas con un coste original de 5.021 miles de euros que están totalmente amortizadas y que se encuentran todavía en uso.

## 6. Oharra - Ibilgetu materialak

Hauexek izan dira ibilgetu materialaren kontuetan izan diren mugimenduak:

## Nota 6 -Inmovilizaciones Materiales

Los movimientos habidos en las cuentas incluidas en Inmovilizaciones materiales han sido los siguientes:

| | Eraikuntzak<br>Construcciones | Instalazio teknikoak makineria<br>Instalaciones técnicas y maquinaria | Beste inst. tresneria eta altzariak<br>Otras instal., utillaje y mobiliario | Aurrerapenak eta bideangoak<br>Anticipos y en curso | Gainerako ibilgetua<br>Otro inmovizado | Guztira<br>Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kostua**<br>Coste | | | | | | |
| **Hasierako saldoa**<br>Saldo Inicial | 6.151 | 23.075 | 994 | - | 6.511 | 36.731 |
| **Gehiketak**<br>Adiciones | 313 | 230 | 44 | 1.431 | 395 | 2.413 |
| **Eskualdaketak**<br>Traspasos | 772 | 526 | 7 | (1.431) | 126 | - |
| **Erretiroak**<br>Retiros | - | (11) | (27) | - | (834) | (872) |
| **Amaierako saldoa**<br>Saldo final | 7.236 | 23.820 | 1.018 | - | 6.198 | 38.272 |
| **Amortizazioak**<br>Amortizaciones | | | | | | |
| **Hasierako saldoa**<br>Saldo Inicial | (682) | (10.130) | (523) | - | (3.366) | (14.701) |
| **Zuzkidura**<br>Dotación | (203) | (2.135) | (94) | - | (656) | (3.088) |
| **Erretiroak**<br>Retiros | - | 5 | 17 | - | 814 | 836 |
| **Amaierako saldoa**<br>Saldo final | (885) | (12.260) | (600) | - | (3.208) | (16.953) |
| **Balio garbia**<br>Valor neto | | | | | | |
| **Hasieran**<br>Inicial | 5.469 | 12.945 | 471 | - | 3.145 | 22.030 |
| **Azkenean**<br>Final | 6.351 | 11.560 | 418 | - | 2.990 | 21.319 |

**Milako eurotan /** Miles de euros

a) Beste ibilgeturik

Beste ibilgeturik izenburupean sartu den kostua honexi dagokio:

a) Otro inmovilizado

El coste incluido dentro del epígrafe Otro inmovilizado corresponde a:

| | | |
|---|---|---|
| **Informatika-prozesuetarako ekipamenduak** | Equipamientos para procesos de informática | 1.773 |
| **Garraiorako elementuak** | Elementos de transporte | 3.345 |
| **Beste ibilgetu materiala (geltokien ekipamenduak)** | Otro inmovilizado material (equipamientos de estaciones) | 1.080 |
| **Guztira** | Total | 6.198 |

**Milako eurotan /** Miles de euros

a) Baltzuaren politika hau da: ibilgetu materialeko elementuek izan litzaketen arrisku guztiak estaltzeko behar dituzten aseguru poliza guztiak Bizkaiko Garraioen Partzuergoarekin batera kontratatzea.

b) 2004ko abenduaren 31n jatorrizko 1.844 milako euroko kosteko material ibilgetua dago, erabat amortizatuta egonik oraindik erabiltzen dena.

b) Es política de la Sociedad contratar, junto con el Consorcio de Transportes de Bizkaia, todas las pólizas de seguros que se estimen necesarias para dar cobertura a los posibles riesgos que pudieran afectar a los elementos de inmovilizado material.

c) Al 31 de diciembre de 2004 existe inmovilizado material con un coste original de 1.844 miles de euros que se encuentra totalmente amortizado y que todavía está en uso.

## 7. Oharra - Finantza-Ibilgetuak

Hauexek dira finantza-ibilgetuen kontuetan izan diren mugimenduak:

## Nota 7–Inmovilizaciones Financieras

Los movimientos habidos en las cuentas incluidas en Inmovilizaciones financieras han sido los siguientes:

| | **Hasierako saldoa** Saldo inicial | **Gehiketak** Adiciones | **Bajak** Retiros | **Epe laburrerako eskualdaketak** Traspaso a corto plazo | **Azken saldoa** Saldo final |
|---|---|---|---|---|---|
| **Langileei emandako maileguak** Préstamos concedidos a personal | 395 | 218 | (44) | (189) | 380 |
| **Gordailu eta fidantzak** Depósitos y fianzas | 3 | - | - | - | 3 |
| **Guztira** Total | 398 | 218 | (44) | (189) | 383 |

**Milako eurotan /** Miles de euros

Langileei emandako maileguen epea hiru urtetik bost urtera doa, eta hileko nominatik diru hori kenduz burutzen da ordainketa. Mailegu horiek %2,5 korritua sortzen dute.

Langileen maileguen epe laburrerako zatia, 170 milako eurokoa, Egoera-balantzeko dabilen aktiboan dagoen "Langile zorduna" izenburupean erakusten da.

Hauexek dira langileei emandako maileguen epe luzerako mugaegunak:

Los préstamos al personal se conceden a un plazo entre tres y cinco años y su reembolso se realiza mediante descuento de la nómina mensual. Estos préstamos devengan un interés anual del 2,5%.

La parte a corto plazo de los préstamos al personal, por importe de 170 miles de euros se muestra en el epígrafe de "Personal deudor" del activo circulante del balance de situación.

Los vencimientos a largo plazo de los préstamos concedidos al personal son los siguientes:

| | | |
|---|---|---|
| **2006** | | 133 |
| **2007** | | 108 |
| **2008** | | 77 |
| **2009** | | 50 |
| **2010** | | 12 |
| **Guztira** | Total | 380 |

**Milako eurotan /** Miles de euros

## 8. Oharra - Izakinak

Izakinak, oro har, ordezko piezak eta beste hornidura batzuk dira.

## Nota 8 – Existencias

Las existencias corresponden en su totalidad a repuestos y otros aprovisionamientos.

## 9. Oharra - Herri Administrazioak

Herri Administrazioen izenburupeko saldoa hurrengo kontzeptu eta zenbatekoei dagokie:

## Nota 9 - Administraciones Públicas

El saldo incluido dentro del epígrafe de Administraciones Públicas corresponde a los siguientes conceptos e importes:

| | | **Zordunak** Deudores | **Hartzekodunak** Acreedores |
|---|---|---|---|
| **Foru Ogasuna, PFEZ dela eta** | Hacienda Foral por IRPF | - | 311 |
| **Foru Ogasuna, BEZ dela eta** | Hacienda Foral por IVA | 1.591 | - |
| **Foru Ogasuna, KEK dela eta** | Hacienda Foral por IRC | 37 | - |
| **Gizarte Segurantzako erakundeak** | Organismos de la Seguridad Social | - | 400 |
| **Guztira** | Total | 1.628 | 711 |

**Milako eurotan /** Miles de euros

2004ko ekitalditik kobratzeko dagoen zenbatekoa Baltzuak ekitaldi horrengatik aurkeztutako BEZ likidazioaren ondorioz ateratzen dena da.

2004ko ekitaldian aurreko ekitaldietako BEZ zergak direla eta Bizkaiko Foru Aldunditik kobratzeke zeuden zenbateko guztiak kobratu dira.

El importe pendiente de cobro del ejercicio 2004 es el que resulta de la liquidación de IVA presentada por la Sociedad, correspondiente a dicho ejercicio.

En el ejercicio 2004 se han cobrado todos los importes pendientes de cobro con la Diputación Foral de Bizkaia, por IVA, de ejercicios anteriores.

## 10. Oharra - Aldi Bateko Finantza Inbertsioak

## Nota 10 - Inversiones Financieras Temporales

Izenburu honen barruan honako zenbateko hauek sartu dira:

Bajo este epígrafe se incluyen los siguientes importes:

| | | |
|---|---|---|
| **Epe laburrerako errenta finkoko balio-kartera** | Cartera de valores de renta fija a corto plazo | 10.781 |
| **Epe laburrerako korrituak, errenta finkoko balioak** | Intereses a corto plazo valores de renta fija | 7 |
| | | 10.788 |

**Milako eurotan /** Miles de euros

2004ko abenduaren 31n, epe laburrerako balio-kartera enpresaren Enpresa-Ordainkizunen aldi baterako erosketei dagokie, 2005eko urtarrilaren 19ko muga eguna izan, eta urteko %2, 24ko korritu nominala sortzen dutenei.

Al 31 de diciembre de 2004, la cartera de valores a corto plazo corresponde a adquisiciones temporales de Pagarés de empresa que vencen el 19 de enero de 2005 y devengan un interés nominal anual del 2,24%.

## 11. Oharra – Diruzaintza

## Nota 11 – Tesorería

| | | |
|---|---|---|
| **Finantza-erakundeak** | Entidades financieras | 1.998 |
